

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria (((24. zk))) Martxoa-Ekaina 2014



Urkiye zirko mundiala!

Gertrudis Arza: garai bateko bizimoduaren lekuko.

Ibilbidea: Lazkao-Lazkaomendi-Lazkao

Udaleko berriak: Itsasondo-Ordizia bidegorria



Beste behin ere, Itsasondo 2.0 aldizkariaren 24. alea aurkeztera gatoz, eta beti bezala, edukiz betea suertatu zaigu. Gustukoa izatea espero dugu.

Ale honetan bi elkarrizketa potolo ditugu. Batetik, Gertrudis Arzari eginiko elkarrizketa. Ez dakit gaztaroan krisi hitza entzuna izango ote zuen, baina argi utzi digu elkarrizketan garai haietako bizimodua oso gogorra zela; hala ere, beti aurkitzen zuten alaitasunerako zirrikitu bat. Ale honetako bigarren elkarrizketa Iker Uson Itsasondoko gizarte langileari egin diogu. Bertan, Itsasondoko Udaleko Gizarte Sailak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuak aurkeztu dizkigu.

Gaiz aldatuz, herriko txiki eta gazteak ekintzaz gainezka dabilta. Txikiek haur-eskolan bizitzan aurrera egiteko autonomia bilatu nahian nola dabilta azalduko digute; handixeagoak, berriz, zuhaitz eta arbolak landatzen ibili dira, ingurugiroarekiko lotura eta arretaz jabetzen. Ludotekan, aldiz, Ainararen laguntzaz hainbat ekintza eta tailer egin dituzte. Gazte-lekuan eta gazte-txean ere ez da ekintzarik falta izan. Garbi dago etorkizuna indartsu datorrela. Jubilatua ere ez daude amore emateko, eta beraien ekintzen berri eman digute.

Horrez gain, 2014. urteko aurrekontuen, bigorriaren eta diru-laguntzen berri ere izango duzue.

Betiko atalak ere hor ditugu: aholku informatikoak, errezetak eta lorezaintza gomendioak.

Onena hasieratik hasi eta poliki-poliki aldirakaria zeuek aztertzea eta dastatzea izango duzue. Ziur sorpresaren bat topatuko duzuela. On egin!



- 04. **Jubilatuak:** Bizi-Nahi jubilatutako elkartean mugimendua eta aurpegi berriak
- 04-07. **Udaleko berriak**
- 08-09. **Eskola:** Inauteriak: Urkipe zirkua
- 10. **Haurreskola:** Haurren autonomia
- 11. **Aranzadi:** Non daude Euskal Herriko barazkiak eta fruta-arbolak bariatateak?
- 12-15. **Zaharrak berri:** Urkiko garai bateko bizimoduaren lekuko
- 16-17. **Gazteria:** 2014 urtarrila-martxoa
- 18-19. **Ongizatea:** Itsasondoko gizarte langileak, gizarte ongizateko zerbitzuak aurkezten dizkigu
- 20. **Gazte asanblada:** Gaur zuzatit, bihar negatit
- 21. **Kale inkesta**
- 22-23. **Ibilbidea:** Lazkao-Lazkao mendia-Lazkao
- 24. **Informatika:** Permanentsia mugikorretan, beharrezkoa al da?
- 25-29. **Hemeroteka**
- 30. **Lorezaintza eta errezeta**
- 31. **Liburuaren txokoa**
- 32. **Oharrak. Kultur agenda**

DOINUA: Joana Bixenta Olabe

Hasi gaitzen kontuz aharrekin ezagutu eta far piskategin, ondoren, berriz, hainbat zerbitzu gizarte mailan ez bizi itsu ara, Gertrudis eta Iker, biak hitz eta hitz jendea entzuten gustona, berriz!

Gurasoengan kezka agendan: herriko eskola bizirik ote dan. Izen berrien lebiaketatik ezin orenta ezerean menpe bisolairupe: gazteentzoko da Karreape umeen kabi, horra Urkipe.

Udaletxeko aurrekontuak diru laguntza ta atarramentuak, ijito egunez den bazkaria postzerako herriko mamia asko komeni ontziak eta gatak ipini Ana, Iker ta Marikarmeni.

Bizi-Nahi jubilatuta elkartean mugimendua eta aurpegi berriak

Bizi-Nahi jubilatuta elkartean batzordea berri da.



Badira urte batzuk Itsasondoko Jubilatuta Elkartean ez dela batzordea berri, eta gaur egun bazkide direnen artean, batzordea adina altua da (80 urte inguru). Batzordekide ez sartzek, batzordean dauden urte askoan jarraian lanean aritzea ekarri du, eta honek guztiak dakarren neke nabaria da beraien artean. Egoerak horrela jarraituz gero, jubilatuta elkartea ixteko arriskuan egon liteke.

2012. urtean egin zen parte-hartze prozesuan, Bizi-Nahi jubilatuta elkartea indarberritzeko proposamena atera zen mahai gainera, eta orain artean lanketa horretan jardun dugu.

Helburua nagusia izan da elkartea indarberitzea, "haize freskoa" sartzeta eta bertan mugimendua sortzea, herriko jubilatuta gazteak elkartera erakartzea eta denen artean 2014 urte osorako egitarau erakargarria osatzea.

Herriko zenbait jubilatuekin bilerak egin ostean, zaila izan bada ere, lortu dugu batzordea bizirik mantentzea. Orain arte martxan egon den batzordeko kideetatik lau bazkidek jarraitzeko

asmoa azaldu dute, eta hiru jubilatuta gazte bazkide berri izateko prestutasuna azaldu dute.

Berri ere errutina berdinean eror ez gaitzen deialdi zabala egin nahi dizuegu herriko jubilatutoki, denon beharra dugulako herrian dugun elkartea mantendu nahi badugu.

Jakin badakigu zaila dena jende berria batzordean sartzeko prest izatea, eta horregatik, honako formatu edo proposamen hau azaldu nahi dizuegu:

- Urtean bi edo hirutan bilera irekiak egitea, elkartzen garen guztion proposamenak jasotzeko eta denon gustuko urtea antolatzeko.

Jubilatuta zaudeten guztion laguntza ezinbestekoa da hau guztia aurrera eramateko. Beraz, adi egon deialdiei, eta ahal duzen neurrian zuen proposamenak bilera horietara ekartzeko gonbitea egin nahi dizuegu.

DENOK EMAN BEHAR DUGU ZERBAIT, GUTXI BATZUEK DENA EMAN BEHAR EZ DEZATEN.

Mila esker zuen arretagatik,

Itsasondon, 2014ko martxoaren 11n ■



Udal batzarreko erabakiak

Abenduaren 23an udalak egindako batzarrean tratatutako gaien artean garrantzitsuen 2014ko aurrekontuen onarpena izan da, honako laburpen honekin:



AZALPENEA

1 Kap. Zergak	136.596,00	1 Kap. Pertsonala	218.300,00
2 Kap. Obra Baimenak	300,00	2 Kap. Gastu Amarkomunak (Argiteria, Ura, Kalefakzio, Tel.)	285.152,00
3 Kap. Tasak	91.650,00	3 Kap. Interesak Mailegu	3.350,00
4 Kap. Diru-Laguntzak	479.885,00	4 Kap. Mankomunitateak-Elkarteak	114.945,65
5 Kap. Errentak-Interesak	14.800,00	6 Kap. Inbertsio Gastuak	165.152,35
6 Kap. Orubeen Salmenta	-	7 Kap. Transf. Landa Gipuzkoa	100,00
7 Kap. Diru-Laguntza Proiektu Handi	76.769,00	9 Kap. Epe Luzerako Maileguez amortizazioa	13.000,00
8 Kap. Kreditu Gehiagarriak Finantz.	-		-----
9 Kap. Epe Luzera Jasotako Maileguak	-		800.000,00

	800.000,00		

INBERTSIO KOADROA

	Inbertsioa	Diru-laguntza	Ekarpena
Langabetuen kontratazioa	17.325,00	7.500,00	9.825,00
Toki goxo. Inbertsioa-Diru-laguntza %100ean	38.590,78	35.272,00	3.318,78
Artxiboa 2. fasea	12.000,00	6.000,00	6.000,00
Herri bideak	29.371,54	17.622,92	11.748,62
Argiteria EVE-auditoria	12.000,00	6.000,00	6.000,00
Mediku etxeo leihoak	8.000,00	3.043,00	4.957,00
PAU errepartzelazioak	20.000,00	-	20.000,00
Agenda 21 eskolakoa	1.522,00	761,00	761,00
Aranzadi	42.530,00	17.574,00	24.956,00
	181.339,32	93.772,92	87.566,40

1. SOLAIRUKO KULTUR-GUNEKO OBRAREN LIKIDAZIOA

GASTUAK

Obra	156.915,40 €
Obra zuzendaritza eta proiektua	14.893,50 €
Obraren prebentzio segurtasuna	790,00 €
Megafonia osagarriak	677,60 €
BEZ	36.388,07 €

GUZTIRA

209.664,57 €

DIRU-SARRERAK

Foru Aldundiaren diru-laguntza	57.600,00 €
Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza	138.636,93 €
Udalaren ekarpena	13.427,64 €



Aurrekontuen inguruan aipatu baita, aurten garrantzitsutzat jo da hiri antolamenduko programatan (P.A.U. gaztelaniaz) inbertsioa egitea, datozen urteetan hirigintza mailan nondik nora jo ezarriko bailukete.

Bestalde, jakinarazi nahi dizuegu aurten Gipuzkoako Foru Aldundiaren Udal Foru Fondotik (diru-sarrera iturri nagusia) jasoko duguna 417.562€ direla. Iaz 391.581,47€ jaso genituen, eta 5.565,60€ itzuli beharko ditugu, GFAtik egindako aurreikuspenak baikorregiak izan zirelako.

Beste erabaki batzuk

Udal koordinazio lanetan aritzeko dedikazio partziala, astean zortzi ordukoa, onartu zaio Erkuden Mendizabal udal zinegotziari, urtarrilaren 1etik aurrera.

Nagusia 7ko 2.solairuko etxebizitza errentan emateko tramitatutako espedienteen jasotako eskaerak aztertu eta puntuatu ondoren, etxebizitza errentan eman da.

Sevillako espetxean dauden euskal presoek pairatzen duten egoera salatzen duen mozioa onartu da.

Itsasondoko Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko Plana (V. Plan-gintzaldia 2013-2017) behin betiko izaeran onartu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren artean Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen bere etxebizitza bakarra galtzeko arriskuan, gizarte bazterketaren mugan, edo diru erreklamazioen egoeran badaude, pertsonen eskubideak babesteko laguntza juridiko integralko zerbitzua jasotzeko egindako hitzarmenarekin bat egitea erabaki da.

Diru-laguntza hauek onartu dira:

- Herri Urrats, 250 euro
- Nafarroa Oinez, 250 euro
- Itsasondoko Herri Eskola, 2013ko gastuak finantzatzeko 1.100 euro
- Itsasondoko Herri Eskola, udaleku irekietarako laguntza 450 euro
- Ijittu Kirol Elkarte, 2013ko ekintzak finantzatzeko 1.000 euro
- Udalbiltza Partzuergoa, 2013ko kuota 2.000 euro

Herriko zenbait gaztek gaztelekua asteburuetan erabiltzeko eskaera egin ondoren, eskaera onartu egin da.

2013ko 4. hiruhilabeteko ur errolda onartu da, 16.988,02 €, eta ordaintzeko epea datorren martxoaren 15a bitartekoa izango da.

Obra txiki baterako baimena eman da.

Eskatutako diru-laguntza berriak

Goimen elkarteari diru-laguntza eskatu zaio honako proiektu hauetarako:

- Urkiko frontoiko euri uraren ondorioz izaten diren ur filtrazioak konpontzeko.
- PR GI 54 ibilbidean zehar dauden ga-beziak konpontzeko.

Jasotako diru-laguntzen informazioa

Herri bideetan 2013ko neguan eta udaberrian izandako euriteen ondorioz Itsasondon gertatutako luiziak konpontzeko Aldundiak 13.696,52 € laguntza eman du, %46a.

Azaroaren 19an, Aldundiak bi Foru Arau berri onartu zituen enplegua bultzatzeko, bat langileen kontratazioa finantzatzeko eta bestea Tokiko inbertsioak bultzatzeko. Bietarako laguntza lortu da. Langile berriaren kontratazioa apirilaren egitea aurreikusten da. Langabeziaren kontrako planean udalak 2014an bi langile izango ditu, beraz, kontratatuta, bat urtarriaren hasi zena eta orain jasotako laguntzarekin kontratatuko dena.

Tokiko inbertsioak bultzatzeko programan "Toki goxo ingurua birgaitzeko" 38.590,78 euroko laguntza lortu da.

Udaletxeko artxiboko dokumentazioaren informatizazio eta antolakuntza lanen 2. fasea burutzeko 7.260 euroko laguntza jaso da.

Ingurune Naturala eta Landa eremuaren kontserbazio lanetarako 2013-2015 planerako Eusko Jaurlaritzako Ingurune Naturalaren sailak 24.330,66 euroko laguntza eman du.

Foru Aldundiari Tokiko energiaren aurrezpena eta eraginkortasun energetikoaren programan egindako deialdian Agarreko Argiteri Publikoa hobetzeko 381,08 euroko laguntza jaso da.

Biztanle erroldaren datuak

2013ko abenduaren 31ra egokitutako biztanle erroldaren datuak hauek izan dira:

2013ko urtarrilaren 1ean, 668 biztanle

Altak:	Jaiotakoak	3
	Immigrazioak	69
Bajak:	Heriotzak	6
	Emigrazioak	58


2013ko abenduaren 31ko biztanleak 676.

Ordizia-Itsasondo bidegorria


2008an idatzi zen Itsasondo-Ordizia oinezko eta bizikletarentzako bidea. Proiektu hark aldaketa batzuk izan zituen eta orain erakitzeaz dagoenak ondorengo aldaketak izan ditu: GI 2131 eta GI 4761 errepidearen mendialdetik zihoana orain erreka aldetik izango da; Ordiziko bidegorriak Legorretakoarekin bat egingo du, herrigunea zeharkatuz.

Bidegorriaren lanak maiztean hasiko dira eta urte-bukaerarako amaitzea espero da. Lan hauek egiteko aurrekontua 2.443.929,67 €-koa da (BEZa barne). ■


1




2




3




4




5




6



7



8



Inauteriak: Urkiye zirkoa

Herrian baditugu hainbat artista

Otsailaren 28an, URKIPE ZIRKOA Itsasondoko frontoian jarri eta izugarritzko ikuskizuna eskaini zuten.

Jakin badakigu, gogor aritu direla lanean, Leire eta Arantzazu andereñoekin batik bat.

Bertan, hainbat animalia ikusteko aukera izan genuen: elefanteak, lehoiak... domatzaile eta guzti!

Hiru mago handi, trapezistak, ekilibristak, malabaristak... ez zen ezer falta izan!

Aipatu beharra dago Ibai aurkezlearen lana, naturala, barregarria... Berezkoa duela azpimarratu nahi dugu.

Txikienak, pailazo dantzari bilakatu ziren!

Ikuskizun zoragarria! Mila esker guztioi! ■



Malabarak



Elefanteak



Lechiak



Gimnastak



Magaak

Maite ditut maite nire bazterrak

Maite ditut maite geure bazterrak lanbroak izkuratzen dizkidanean zer izkuratzen duen ez didanean ikusten uzten orduan hasten bainaiz izkutukoa... nere barruan bizten diren bazter miresgarriak ikusten.



Aitzurrak lanean ari nahi duenarentzat prest

Gure herria ederra ikusi nahi dugulako, gure herria zaindu nahi dugulako eta gure herrian bazter berdeak ikusi nahi ditugulako. Horrexegatik, gure ardura izatea ere nahi dugulako, aurten ere zuhaitzak landatu ditugu Itsasondoko bi puntu ezberdinetan. Aranzadi Elkartekoei aurten ere eskerrak eman behar dizkiegu, beraiek lagundu baitiguen zuhaitzak landatu eta txorienzako kabiak jartzen.

Bestalde, udaberria badatorrela eta, deialdia luzatu dugu eskolatik familiei, auzolanean baratzeko lurrari buelta eman, ongarria bota eta goxatzeko. Honela, gure intenzioa udaberrian baratza lantzen hastea da. Irrikitan gaude lanean hasteko eta ea uzta goxoa lorzen dugun!! ■




Landaketa lanak burutzen



Landatutako zuhaitzekin gustora

Aurreko aldizkarian hasi genuenarekin jarraituz, haurreskolan autonomia nola lantzen dugun erakusteko asmoz, guk zeri ematen diogun garrantzia eta nola jokatzeko erakutsi nahi dizuegu.



Haurraren autonomia

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dugu, gure haurreskola haurreskola txikia izanik, horrek ematen digun aukera askoz handiagoa dela, haurrekin beraien aurrerapausuak babesteko garaian. Denbora gehiago daukagunez haur bakoitzari dagokion atentzioa emateko, haurra segurua sentituko da aurrerapausuak emateko garaian. Aurreko alean esan genuen bezala, helduarekin hurreman ezinbestekoa du, ukitua, maitatua eta zaindua izan behar duelako, eta horren ondorioz sentituko du segurtasuna. Hortik abiatuta hasiko da haurra bere autonomia bilatzen eta gaitasunak garatzen.


Beraz, guk haurreskolan haurraren autonomia bultzatzeko honela jokatzeko dugu:

Haurra haurreskolara etortzen denean beso zabalik ongi torria ematen diogu. Hasieran, atxikimendua lantzen dugu, haurra seguru sentitzeko eta betiere haurrak behar duen denbora errespetatuz. Ondoren, haurreskolako gelan dugun tatamiaren gainean jartzen dugu haurra, bere gisara hasteko mugimenduan. Biologikoki, haurra bere gorputza mugitzeko prestatuta dago, eta oso pauso zehatzak ematen ditu katamarrean hasteko eta gero zutik jartzeko (ikus marrazkiak). Gu, hezitzaileok, haurrari segurtasuna ematen diogun per-

Poliki-poliki denbora pasatzen doan heinean, haurra mugimenduan trebatzen doa, hasieran jarri dugun tatami hortatik kanpoko espaziora zabalduz eta bere munduaren ikuspegia zabalduz. Gu, hezitzaileok, lurrean mantentzen gara berari segurtasuna ematen segitzeko eta berriro urduri sentitzen denean bera gai izan dadin guregana etortzeko babes bila, eta ez alde-rantziz, gu berarengana. Gure papera haurrak lasaitzea izango da, beraiek beren bidea segitzeko.

Pauso bat aurrerago joanaz, katamarrean hasten dira eta gela guztia esploratzen hasten dira bertan dauden materialak manipulatzu. Haurrak espazioa eta materiala ezagutzen duenean, eta jakina, hezitzailea, gelan oso gustura ibiliko da, eta orduan izango dugu aukera lurretik altxatzeko eta zutik jartzeko. Katamarretik zutik jartzeko prozesua ematen du berehala eta segurtasun handiarekin pixkanaka oinez hasiko da bere gisara, guk lagundu gabe. Jakina, haurreskolako gela erabat egokitu dago hori guztia gertatzeko, zeren dena haurraren neurria eta bere beharretara egokitu dago. Beraz, hezitzailearen esku hartzerik gabe haurrak zutik jartzea eta oinez hastera lortu du eta haur bere garapenerako erabateko konkista da, berak ikusi baitu bere lanarekin helburuak lortzen dituela, eta hori haurraren etorkizunerako oso baliotsua da.

Hauxe da, beraz, haurreskolan txikienekin dugun funtzionatzeko modua. Etxean ere berdin jokatzera animatzen zaituztegu, beraien autonomia lortzeko bidean. ■



Non daude Euskal Herriko barazki eta fruta-arbolen barietateak?

Gai honi eusteko ezinbestekoa da lehenik eta behin bertako barietatea edo barietate tradizionala zer den zehaztea, baina hau ere ez da lan erraza; izan ere, ez dago tokiko barietatea argi mugatzen duen esanahirik. Dena den, gai honen inguruan azken urteetan egin diren lanetara jotzen badugu, honako hau onartu dezakegu: urteetan zehar nekazarien familiek egindako hobekuntza eta aukeratzearen ondorio dira tokiko barietateak edo barietate tradizionalak, eta bizi diren tokiko baldintzei eusteko moldatuta daude.

Gurean, ondare honen ezagupena zabalzen gordetzen lan handia egiten du Euskal Herriko Hazien Sareak. Egindako ikerlanetan, tokiko barietatea zehazteko bi irizpide zehazten ditu: (1) gutxienez bost urtez erabili izan diren haziak urteko landareen kasuan, eta hamar urte bi urteko landareen kasuan, eta (2) duela gutxi eskuratutako barietate komertziala ez izatea (belaunaldiz belaunaldi edo elkartruke bidez jasoa izatea, adibidez).

Baina, nekazaritzaren bilakaeran, XX. mendetik gaur arte, landareetatik lortutako etekinak hobetzeko teknika berriak erabiltzen joan dira, eta aspaldiko barietateen ezaugarriak garrantzia galtzen joan dira pixkanaka (intsektu kaltegarriekiko berezko erresistentzia, lehortea jasateko gaitasuna, loraldiaren iraupen luzea...). Horrela, barietate hibridoak edo laborategian sortutakoak sustatu dira, etekin handiagoak ematen dituztelako eta uzta mekanizatura egokitzun direlako, ongarririk eta produktu kimiko ugari behar badituzte ere.

Munduko toki askotan Iraultza Berde

hau aurrerapauso handitzat jo zen, nekazaritzaren ekoizpena handituko zelakoan. Horrek, ordea, gainbehera genetikoak ekarri du, espezie eta barietateen gutxitzea, alegia, eta biodibertsitatearen eboluzioan parte hartzen duten prozesuen etenaldia. Horren harira, garrantzitsua da aipatzea, arroza, garia, artoa edota patata bezalako megakultiboetako espezieetatik planetaren erdia elikatzen dela. Eta Euskal Herrian, esaterako, perraitza, txiribila eta aixkola bezalako espezieak barizatetik desagertu egin direla. XX. mendearen hasieratik gaur egun arte nekazaritza biodibertsitatearen %75 galdu da.

Biodibertsitatearen galera, gainera, ez da herri baten ondareari bakarrik dagokion gertaera; alor gehiagori ere eragiten die. Izan ere, gizakion elikadura beharrak asetzeko aldatu eta sinplifikatzen diren ekosistemek nahitaez jasan behar dituzte izurriteen kalteak. Edo, beste era batera esanda, dibertsitate genetikoak agente patogenoen kontrako tresna garrantzitsuena da.

Orokortasunak alde batera utzita, Goierriko eskualdera bagatoz, jakin badakigu bertan industria dela jarduera ekonomiko nagusia; baina, herri txikietan oraindik nekazaritza konbentzionala egiten ere jarraitzen dute. Euskal Herriko Hazien Sareak eskualde honetan egindako azken lanen arabera, Goierriko nekazaritza konbentzionalan gehien erabiltzen diren bertako barietateak indaba gorria, Tolosako indaba, tokiko zerba eta piper txorizeroa dira. Galtezko arrisku handiena dutenen artean, berri, porrusalda kalabaza, indaba gorria,



Itsasondoko ondare naturala zaindu eta indartzeko helburuarekin aurrereko urtean estreinatutako herritarren arteko fruta-arbolen banaketa aurten ere errepikatuta da. 2014. urtean ordea berezitasun bat izan du ekimen honek, aurten bertako barietateen fruta-arbola eta zuhaixkak eskuratu ahal izan dira soilik. Udalerriko natura eta paisaiaren alde egiteaz gain, duela urte batzuetatik gaur arte gertatzen ari den Euskal Herriko barietateen gainbeherari aurre egin nahi izan zaio ekimen honenkin. Mila esker gutxioi zuen konpromiso eta parte hartzeagatik!

baba handia, tokiko zerba, neguko aza, porru berdea, tipula zuria eta txakin artoa daude.

Gainbehera hori gelditzeko, hainbat arlotan aurrerapausoak ematea beharrezkoa da, ikerkuntzan (egoera zehatza zein den jakiteko), legedian (barietate tradizionalen alde egiteko), administrazio publikoen diru-laguntzetan (nekazariak barietate tradizionalen alde lan eraginkorra egin ahal izateko), hezkuntzan (egungo egoerarekiko kontsumitzaile arduratsuak izateko). Baina, zer egin dezakegu guk? Gaur egun, bertako barietateak oso pertsona gutxi mantentzen dituztela jakinik, ondokoek ere horiek lantzea litzateke onena, desagertu ez daitezke. Horrekin batera, barietate hauen haziak jasotzea gomendatzen da, ugalketa eta banaketa landan bertan eman dadin. Eta bukatzeko, saia gaitzen kontzientzia honen hazia ondokoengan eriten. ■

Artikulu honetako datuak Euskal Herriko Hazien Sareak 2007an egindako Euskal Autonomia Erkidegoan galtzeko zorian dauden nekazaritza baliagaien prospekzioa eta haien egoeraren ebaluazioa lanetik jasotakoak dira





Urkiko garai bateko bizimoduaren lekuko

Jertrudis Arza Etxeberria
(77 urte)

Gaurko zaharrak berriko atalari honetara garai bateko baserriko bizimoduaren inguruko kontuak ekarri ditugu. Jertrudis Arzarekin izaniko solasaldi eder haren fruitua duzue ondorengo lerroetan irakurgai duzuen kontakizuna.

Bere bizi-istorio eta bizipenetatik abiatuz josi ditu gure kontalari kuttunak emakumeak baserriaren altzoan bete duen papera. Gozatu irakurle eta zuri Jertrudis mila esker bihotzez zure lekukoa gure egiteagatik!

Jende asko baserritan ordun! Lanak e haundik izango zien baiño jende asko danan arten lanak itteko!

Jendea izanten zan ordun baserritan bai! Urkin hogei baserri kontatzen giñuzten guk eta gaur bi mutil soltero bakarrik geatu die Urki guztin! Ta etxe bakoitzen zortzi ume baiño gutxigoik ez e! Pentsa ze jendek izango giñen! Elizan e eziñ kabittu izaten giñen ta eskola junda re batzuntzat maiek ta izango zien baiño hainbeste, batzuk aldameneko sillatan da aldamenen bankuk jarri ta ibiltzen giñen eskolan! Ordun jende asko zan baiño gaur... gutxittu in gea.

Zu Urkin jaio ta Lizardia ezkondu. Paraje haitan ezatan errega izango bizimodue ala?

Ez... Hauntza etzeon bideik, ez elektrizidade ta argik e etzan ta ez dau guaiñe. Alternadore batekiñ itten deu oaiñ e argia han guk ta ordun haik e etzien! Ta argie itteko, zu gaztea zea ta ezdakizkizu baiño... harri bat zan karburue izena zona ta hue Ordizin Alontsonen ferreterin saltzen zuen ta asteazkenetan handik eamaten gendun hue. Zan zuri-zurie ta aproposko ontzi bat zon harrek argie itteko. Erroskan lotzen zan ta azpin jartzen zendun harri hue sartuta ta gaiñekoi ude jartzen zitzaion ta ude tantoka botatzen zon harrek ta hola punta zea bat zon. Argi oso ona itten zon e! Baiño jartzen zenun lekun bakarrik! O sukalden bakarrik o behiek eta jeizteko ikullua eamaten zenun ta han bakarrik! Hue moittuz ibili behar! Ta bestela ibiltzen giñen kandela ta farolakin... Ta beste bat e bagenun, kinkea esate giñun. Bai... holako zea borobil bat zan ta hue re farolan barrun sartu ta harrekin e bai, ibiltzen giñen. Linternaik eta ez dakit ordun izaten zan o ez, baiño guk behintzet ez genun izaten! Guk gure kandealea ta farola.

Ta geo sue re ingo zenuen ta harretxek e pixkat goxau!

Bai! Sue ta ekonomikea re bagendun ta beheko sue re bai sukalden. Guaiñ e badare ta ordun e bazien. Sukiñ ondo ibiltzen giñen. Jeki ta aurrenengo lana sue piztea izaten zan baiño egurrekiñ kontu ibili behar izaten genun e! Nequako ta eurrekiñ aurretik kontuk atata ibiltzen giñen. Ordun dana egurre zan sue itteko re.

Nik amona han nun ta harri aurrena goizen esnautakan kafe pixkat beotu ta eamaten nion ohian zeola. Geo be-

hieki jetzi ta gobernau... Gizona udan behintzet juten zan belarra ebaitzea ta hoi danak zuk zeuzkezun eiñ beharra. Ta geo astoa hartu ta haintzako eguerdiako belarra ekartzea segakiñ ta trastekein junda ta hurruna gizonai re gosarie belardia bialdu in behar izaten zitzaion ta hue zeorrek eaman. Geo nei umek kozkortu zitzaizkitenen haikin bialtzen nion baiño neoni re jun nintzen behin baiño gehiotan hari gosarie eamatea. Ta geo eguerdiko martxa! Oaiñ amonakin laun haundie izan non nik e! Hue jekitzen zanen bazkarik eta gauzak harrek moldatzen zittun ta horrekin alluda haundie izan non nik. Ta batzan e bai itten zon ta... bai, amonak asko laundu ziten nei, asko. Peria re abitzen ziñen asteazkenen ta bi ordun eziñ allau izaten giñen! Ordun kaballerik genuzken ekarri beharra ta gañea garai hartan ni Lizarditik ata ta Urkia etorri behar izaten non, handik bera guk beste bideik ez genun. Gero in zan bidea ta errezago itten genun bueltea! Bertatik abittu ta Beozteia! Bela ez baiño behintzet! Urkiaño jun ta errezago zan, handik Itsasondoa jeisten giñen. Malkorra ta bauzkeu guk han izenak dittuen bidek ta hautza jeisten giñen; Urkie barrioa dana pasatzen genun ta etortzen giñen Itsasondoa ta handik Ordizia juten giñen. Holaxe ibiltzen giñen! Baiño gu peria jun ta etorri itteko eune juten zitzaion.

Erropa garbitzea re, ordun lixubea esaten zitzaion ta holako tiña haundik, txapazkok o burnizkok o izaten zien. Ta itten genun... ordun ur beroa behar izaten zan. Ude balden beotu ta mahie re aproposkoa zan, mahai haundie baiño olak buelta guztin itxita jarrita bertan eusteko udei. Ta han jarri erropea bustita ta jaboia, ordun trozoko jaboia izaten zan, ta eskukin igurtzi hola ta tiña harta sartzen giñuzten. Ta geo harri ude balden beotu ta gaiñetik botatzen zitzaion ur bero hue atateko zulo bat eukitzen zon harrek. Han beste balde bat jarri ta handik eroitzen zan ure jaboie ure zan ta ur hue itten genun beize berotu ta gaiñetik bota. Ez dakizu erropea nolako kolorekoa atazan zan! Geo itten genun itturria jun ta harrin gaiñen zipi-zapa jo ta hala, benga! Lizardin etxetik bera seittun genun askea ta geo askan astindu ta alanbren jarri sekatzan ta segi aurea!.

Emakumea ta erditzea, horren ingurun kontaiuzu nola izaten zan. Famili esperantzan zeretenen da azkeneko eunetaiño lanen aittu



Gure amak hamasei ume izan zittun, oaiñ hiltzana guk ez genun ezautu zeatik ia gure ingurukoa o zaharrenatakoa izan behar zon, baiño hamabost bizi izan gea gu, oaiñ hamairu bizi gea. Pentsau gure amak lengo umek urtea in baiño lehen bestea askotan zeuken atzetio; badare bi senide urte igualekok eoten dienak. Harrek e kanpoko eta etxekok in behar izango zittun behiñ baiño gehiotan! Ta gero aittona ta amona re bazeuzken, aitten aitte-amak eta...!

Behar ezta? Ta paraje haitan gaiñea...!

Beharko aittu! Beida, nik gizonan arrebea nun Donostiko Loiolan ezkondata ta zaharrena izatea harrek jetsiazi niñun hautza. Harrek esaten ziñ, paje haitan ez daukezue ez komadrona bat eamateik ta ez daukezue ezerre itteik! Zarrena han izan non baiño gero bakizu, bestek izateko jarri nintzen eta hue han uzteko txikie neuken. Oaiñ izena ez dakit etxe harrena, Ordiziñ... Intxausti eo ez dakit ez ote zan, Errotaberri esaten dioun paje bat baukeu guk hor ta hortik goraxeon etxe bat, han bizi zan komadrona ta harrena etorri nintzen ta harri esplikau nion nola baserri urruti baten bizi giñen ta juteko ta... Ni juteko lekue daun arte bizikletakin jungo naiz guaiñ handik gora pentsaieku ze aldapak eta ze... Ba gaueko ordubitan eaman gendun e Lizardia nik bigarren semea izateko. Koñadoa, gizonan anaie zeon han ta hue bizikletan Idarreneeta ta ibiltzen zan ta harrek eaman zin komadrona. Bigarrena bertan izan non, hirugarrena re bai, laugarrena re bai ta gure Maria Jesus e han jaiotakoa da.

Ordun e pentsau zazu... txorakeri hau re kontatzea bada baiño... ordun bason itten zan lana ta mutil kuadrillak ibil-

tzen zien. Ataungo mutillek, ez dakit sei o zazi o bazien, ta han ai zien ingurun ta hoixe, handik Ataunea eunero jun ta etorri ta ordun etzeon ez kotxeik ta ez ezer! hankak! Gure etxen, jan gure baserrin itten zuen, lo re han itten zuen, dana han itten zuen ta hoixe... Orduako ni alaba izateko neon ta esan giñen nola neon ia euneta allauta ta beste lekun bat billatu o in beharko zuela! Bueno aber ba bordan bat o billatzen deun ba! Aber ba bordea billatzen deun ba baiño haik etzuen bordaika billau ta ni kejau nintzen hue izateko! Goiz baten kablistera esaten giñun, hue ai zan kablek eta jartzen da, direktore ibiltzen zana hure zan ta gure koñadoa lanea jun behar zon Indarrenea. Ordiziko Lizardiko kruzeaiño harrek ekarri komadrona ta handik gora kable zalek, Juan horrek eaman zon nereana ta hue atzea etorri zan bere lanean ta hamarrak inguru hartan jaijo zan gure Maria Jesus. Nik uste nun nere gizona txorau ingo zala! Eske genduzken hiru mutil ta gizonezkoak genealen mutil zalek izaten die baiño harrek alaban antxie zeuken! Ikusi zonen neska zala ata ta korrika baso mutillei esatea alaba izan zola ta etzeukela iñoa jun beharrik! Baiño esateizut, txorauta zeola ematen zon! Ba holaxe ibiltzen giñen! Gero ahizpa Roxariok, hemen bizi danak, hurrengo Lontxo zan ta hue Araman ahizpanen izan nun. Haik e danak bullan, baiño han zertan geatu behar den umea izateko!... Gero behintzet Lontxo Araman ahizpanen izan nun ta geo bestek, haik gaiñea bixkik zien ta haik hemen, Roxarionen. Gaztenak ahizpanen izan nittun. Baiño behintzet, geo han hazittu nolabait e ta... hantxe.

Ordu zu ta komadrona manomano!

Komadrona ta ni bai, mano i mano! Han etzeon besteik! Ta aldan bat iñ behar! Eta holakoxeko festa! Zenden bezela! Oian jarri etzanda ta iasta! Miñek beharko pasau! Guaindik akordatzen naiz gure gizon zanak nola galdeu zin, aurrenekoa Loiolan izan non ta hue etzan han ta... ze ibili zaittue aienaka! Ta bai, beharko, esan nion beharko aienaka ibili! Geo handik atzea ikusi zittun e, nola pasatzen zien!

Ez dauketena gogon ta pena dauket izugarrie... pentsatzen eoten naiz ta ez naiz akordatzen horrekin... Abortoa re izan nun ta Don Martin meikue zeon

hemen ordun ta hoixe, nei eman ziten emorrajiak ta eaman niñuen ta esan ziten, honekin klinika dau jun beharra, esan ziñ. Baiño, etzeon hautza ez kotxeik ta ez eze ta oaiñ pena dauketena da Urkiko zein mutil zien ni hankaillan jetsi niñuenak bizkarren hartuta. Hankailla esaten giñun ta hue Urkin eoten zan, baserrin baten ez bazan besten, hue han eoten zan ta lau launek ibiltzen zuen, bi aurretik ta bi atzetik bizkarren jarrita. Urkitik harrekin jende gehio re badie jetsitakok. Ta oaiñ dauketen pena hoi da, zein mutil zien ni Urkitik bera jetsi niñuenak! Oaiñ gero beran Zubingo errekea, ta bideik etzeuken ta zeon pasa beharra errekatik... harri librek... eta nik ez dakit nola eniñuen erreka bota! Baiño eutsi zien e, nei eutsi in zien haik!

Ta geo ze itten zan umea bataillatzea jetsi? Goaindik gorputze beonea etorritzeako eliza sartu behar umea ezta?

Umea izan ta hiru bat eunea o lau luzenea bataillatu in behar izaten zien. Ta geo bestea genua zan, handioxe zeorri ibiltzeko mun jartzen ziñen elizan sartzea esaten zitzaion. Umea beson hartu ta etorri behar izaten genun. Guaindik akordatzen naiz lñaki izango nun orduako o bixkik izanda ta Lizardia juteako eliz-sartzea in behar gendula ta hoixe, nik bat beson neuken ta bestea ahizpak zeuken, biok bana genzuken, ta lñaki akordatzen naiz lñakik nola esan ziten, hartuitzeu bik zeorrek! Bik beson hartu nittun ta bere bedeinkaziok eta itten zittuen ta halaxe emakumea ibiltzen giñen!

Nola kanbiatu dan gauzea! Ta nik beste gauza bat esaten det... hoik danak hola ta oaiñ bezela hillen azkenen jornalik etzeon e! Hoi da bestea! Guk lau behi eukitzen giñuzten ta lauek urten ume bana iñ ezkeo lau txekor, ta haiñ dirue izaten zan. Bestela arrautza batzuk asteizkeneako o dozena pare bat o... arrautzea izanezkeo re... Arkumetatik itten genun ordun komestible gauzea ta hue pixkat bajatzeko arrautza batzuk eta izanezkeo... Holaxe emakumea, gure bizimodue holaxe izan da! Guaindik gogon dauket eneee, gure seme zarrena hamasei urtekin hasi zan Jasoa lanen, asteizken bat zan hue lanen hasi zan eune ta lanbaten e lana itten zan ta lanbaten jun zitzaiten etxea. Ama, beida ze eman dien Jason! Beida gauza asko aztuta

dauzket baiño hoi etzait azten! setezientas beinti dos pesetas eman zizkuien asteizkenetik lanbatea bittarten. Ama hok zutzako! Eneee, hue izan zan netzako! Ilusioa ta poza ta danak izan zien! Ta geo bestea re hasi zan ta... pixkat moldau giñen!

Baiño urte gorrak!

Esateizut! Zuk txekor bat kentzen zenun, aoiñ haik diruik etzuen eitten. Hainbesteko familiri ogie eman behar ziozun! Guaiñ jakik ta halaiñen etxen izaten zien. Urten txerri pare bat hiltzen giñuzten, ta babarruna re etxen izaten zan, ta taloa re bai ta geo, koñeje ta oilaskok e hazten zien ta horrekiñ asko salbatzen giñen! Potajea re etxen zeukezun, ta patatea re urten behar zana etxen izaten genun... eta hola moldatu giñen! baiño guain bezela dirue barra-barra ibilibete izaten giñen! Ene, ene... gue bizimodue emakumea... Jesus, Maria ta Jose! Ta holaxe, holaxe!

Geo baserrik e guaiñ ondo dare jarrita baiño... guaiñ jendea korriente pixkat ta puuu... gu han eon behar izaten gitxonan! Gaiñea pentsazazu e sukaldede aten ta kuartoko aten ata ta bik pare paren! Nik bakizu ze esaten deten gu Saltseberrin kuarton jaiotzen giñen, amona zan gaiñea Urkiko partera ta gu koarton jaijo ta sukaldea ekartzeako korrientek arrapatzen giñuztela eta geoztik gu korrientetik ez gea eta! Nik gogon dauket gure Ana Mari jaijo enen, aitte ta biok basoa junda giñen egurre ekartzen da hoixe, amak orduako jakingo zon ze fetsatan zeon, guk ez genekiun baiño... Etorri giñen etxea ta... Nik ez dakit ordun ze mani izaten zan, gure amona horrek baldeka ur jartzen zon laratzen beotzen, nik ez dakit zertako zon, geo umei zeoze izaten bazon o... ur harrek nik ez dakit ze signifikantza zon. Behintzet etorri gea aitte ta biok basotik egurrekin ta sukaldea etorri geiñen ta amona guri oska, etorri honea! Oaiñ ze ote do? gure aitte horrek, ta jetsi zan sukaldea ta jartzak ur hoi hor beotzen! Ta zertako? Zertako? Ez al dakit zer daukean?...

Ta geo umek Urkiko eskola!

Bai, Urkin izan zuen eskolea. Txikiña geatu zan Urkin eskolaibe zeatik hok bakarrik geau zien eskolako ta hok hiru eongo zien ta beste iñor etzeon ta haikatik bakarrik etzeola maixu ta maixtraik juteik ta... Hok goizeko zazpitan



Lizardi behekoa

etxetik ata ta autobuse hartzea Beozteia juten zien....

Lekutan geatzen da ta Lizardi! Leno zenbat baserri zien bertan?

Lau baserri zien. Goran zien bi ta gu beran giñen beste bi baiño goikok ia, zarrak bukau zien ta gaztek etzien kasuik iñ ta haik eroi in die bik. Errotea re bazan, gure amak ezautu omen zon funtzionamendun, baiño guk ez. Ni errota lanakin enaiz akordatzen baiño... neska koxkorra nintzela nola ibili zien gau baten, gure sukaldeko lehiotik ikusi itten zan ta, nola ibili zien gure aitte ta han, sue dala ta sue dala! Ta azkenen erre in zan etxe hue!.

Ta Murumendia ta juten ziñeten?

Bai! gaztetan gure erromeriko lekue Murumendi zan ta bueltan loaia. Taberna gendun loian ta hautza etortzen giñen bueltan. Han Joxek soiñue jutzen ziun ta dantza pixkat iñ ta illuntzen etxea. Honbre!.

Murumendin bertan e itten zan erromerie e?

Agotuz eun baten itten zan ta loiak Joxe horrek soiñukin hartu ta danak Murumendia harrek eamaten zittun eun hartan. Oaiñ ez dakit agotzun bigarren jaieune o seguru ez dakit... Gu hautza juten giñen zoratzen! Geo han tonto plazea o esaten giñun, nik ez dakit zeba zon izen hue... Zelai-zelaie zan ta han dantza saio batzuk iñ ta illuntzen etxea.

Gure erromeri lekuk hoik izaten zien, San Gregorio esaten giñun ermita bat bazan, Mandubi baiño lehenxeo ta Mandubitik gora Kizkitza. Urten beste beaje bat Azkoitiko Martita itten gendun. Goizen Urkin Santikutzen juntatzen giñen kuadrilla, neska ta mutil, ta goizen zazpik o ez dakit ze ordu gendun... Handik gora juten giñen Mandubia, ta handik Kizkitza atatzen giñen, ta handik eskubia hartu ta handik Martita juten giñen. Han meza entzun ta atzea bueltan hortik etortzen giñen. Gure erromeri leku fijok hoik izaten zien. San Gregorion Pazko bigarrenen eo itten zan, guaiñ utzi due baiño; Kizkitzakoa aoran zortzin o itten zan... Guaiñ agorra re ez da, ez dakit nola hotseitten zaion... Guk hillek giñuzten hilteltza, otsaille, martxoa, apirille, maiatza ta garagarrille, uzta, agutzue, agorra, azarrea ta abendue. Gue hillek hoik zien, guaiñ hoik e danak kanbiatu die. Ba agorren zortzin Kizkitza, hoi izaten gendun ta bazkalduta garaiz atatzen giñen, hoixe, harten eune luzea eoten da, baiño Kizkitzaiño jun ta han dantza-saio batzuk iñ ta atzea bueltan illuntzeako etorri in behar izaten zan berriz!.

Ta mutil launtzen etortzen zien zuen atzetik?

Honbre etortzen ziela! Ni akordatzen naiz Kizkitzatik, bi urtetan e bai e! ni eta beste bat Urjene, Zelestina, kua-

drillakok giñen ta Kizkitzatik Mandubia jeitsi ta San Gregoriotik hortik bueltan etortzen giñen ta oaiñ koñadoa dauket Roxarion gizona, Joxe ta beste bat Santa Maiñan Muiitango baserrikoa zan. Bi mutil haik bi urtetan illaran guri launtzea Urkia etorri zien. Gu Urkin utzi ta ia illunduta bik Santa Maiña. Pentsa zazu ze ibillerak itten zittuen ordungo mutillek! Ta hola asko izaten zien e! Urkitik Albizurrea ta re ezkonduetak e badare! Ta beste bat bagendun... geo etzan Urkikokin ezkondu hue baiño, Santa Maiña ingurukoa o zan ta hue zaldi gaiñen etortzen zan. Ta hor Urkin, Santikutzen hor nunbaitten uzten omen zon zaldie lotuta ta esaten omen zion, gaeko ordubatat arte! esaten omen zion zaldiri. Harrek neska Aurretzekoa zon neska launtzea etortzen zana. Nik neonek e banun Urkio-kekoa o esaten giñuna. Nik ez dakit harrek zenbat aldiz laundu ziten etxea! Baiño beste batzutan Zubingok e bai ta... tokatzen zana, launtzen ziven bitarten ondo ibiltzen giñen.

Gauza asko galduiteu guk atzekok e? Egie da zuek bizimodue gorra izan zenuela, hoi ezin da dudan jarri, baiño pozak e poz haundik ta ilusiok ilusio haundik! Askotan nik neonek pentsatzen det... dana euki ta disgustoa... ez dakit nik, ez dakit! ■

Gazteria 2014 urtarrila-martxoa



2014. urtea indartsu hasi du gazteria sailak. Gauza asko antolatu eta gauzatu dira eta horrez gain, proiektu eta asmo ugariekin ari dira lanean. Hona hemen laburbilduta, azken berriak.

Itsasondo haurren herria, egitasmoa

Herri txikia izateak, ez du zailtasuna izan behar edozelako ekintzak herrian antolatzeko garaian, ezta haur, nerabe eta gazteekin lan egitekoan ere. Horretarako, ordea, oso garrantzitsutzat jotzen dugu haurreskolak, eskolak eta ludoteka eta gaztelekekuak bat egitea. Horrela, zerbizu hauen izaera indartzeko faktore garrantzitsutzat jotzen ditugu, hauen partehartzea herrian. Horietako bakoitzak elkarri asko dute emateko, lantzeko eta elkarlana egiteko.

Herri txikietan, umeak elkartzeko oinarritzko leku bihurtzen dira, haurreskola, eskola, ludoteka eta gaztelekua eta herriari bizitza ematen die, herriko bizitza bermatzen dute. Gauza ederra da hori eta guztiok ere hori babestu egin behar ditugu.



Horrelaxe sortu zan haurren herria egitasmoa. Guk argi daukagu, gure zerbizuetara datozen umeak etorkizuneko herritar bihurtzeko sozializazio prozesuaren eragile nagusietakoak garela. Umeei izaera pertsonala garatzeaz gain, herritar izaera garatzen ere lagundu diezaiekegu, euren herrietako sustraiak eta erroak ezagutaraziz eta haietaz harro sentiartziz.

Sortu berria den lan taldea gogotsu ari da horretan lanean. Ematen ari garen pausuk txikiak dira baina sendoak. Lehen lana haurreskola, eskola eta gaztelekuari izena jartzea izan zen. Hori beteta, orain zerbizu guztiak irudikatuko dituen logoaren bila gabilta. Horretarako, Urkipe herri eskolako haurrei eskatu zitzairen lantxoak egitea. Lantxo desberdinak jaso ditugu, guztiak ere politak, landuak eta haurrek ilusio guztiarekin eginak. Momentu honetan, lan taldea, Tandem enpresak aurkezturiko logotipo desberdinak aztertzen ari dira eta ondoren herritarren partehartzearekin gehien gustatzen den logoa aukeratu da.

Ekintza honen helburua, gure zerbizuen irudi bat sortzea da, izenarekin batera, gurea egingo dugun logoa, haurrek, nerabeek eta gazteek, zein herritar eta herritar ez direnak ere identifikatuko duen irudia hain zuzen ere. Logoaren aurkezpena Apirilean egitea aurrirakusten da.

Horretaz gain, Itsasondoko III. herri egunean egingo den festa prestatzen ere ari da lan taldea. Honela, herrian dauden beste eragile eta ekintzekin uztartu nahi dugu. Ikusiko dugu nola egin litekeen elkarlana, nola erabil litekeen prozesu hau beste egitasmoen onurarako eta alderantziz. Haur, nerabe eta gazteei zuzendutakoa izanagatik, herrigintza sarea egitea delako helburu nagusietako bat.



Eskolako argazki erakusketa



Ludotekan tailerrak



Zine emanaldia Gaztelekuan

Ludoteka

Astelehenetan Ainara hezitzailearekin batera, Itsasondoko 4-10 urte bitarteko haurrak Eguzki Lore ludotekan ekintza desberdinak egiten dituzte. Buztinekin eskulanak egin dira, jolas kooperatiboak ezagutu dituzte, lekarien kuadroak egin dira, ipuinak eta antzerkia landu dira, beti ere haurren emozioak lantzeko. Laburbilduz, mota askotariko ekintzak egin dira eta haurrek zein hezitzaileak primeran pasa dute.

Asteroko ekintza horiez gain, momentu honetan, haur asanblada osatzeko lanetan gabiltza. Ekintza honen helburua, alde batetik umeei entzutea da. Izan ere, umee asko dute esateko, nahiz eta askotan pentsatzen dugun haurrek hitzen, publikoan ez dutela balio. Umea ez da gai diskurtso koherente bat egiteko, arrazoi-tzeko, oso gai bitxiak erabili ohi ditu. Baina nola hartuko dugu seriotzat koloretako elurra nahi duen haur bat ezta? Horrelako hitzak, esaldiak, aipamenak askotan egiten ditugu. Bada garaia ordea, haurrei entzuteko, asko dute eta esateko eta.

Bestetik, herri sortzaile eta partehartzailea eraiki nahi dugu eta, etorkizunearn, herri honen partaidea izango diren umee hezten hasi behar badugu, eurak, protagonistak, subjektu aktibo bihurtu behar ditugu. Txikitandik hasi behar dute umee euren iritzia ematen eta euren ekarpena egiten.

Zer esan nahi du ordea, umee prota-nista izango direla? Umeei zuzenduriko programazio bat garatzeko, programazio horren diseinuan, antolaketan, eztabaidan eta erabakiguneetan umee egon behar direla. Hain zuzen ere, umee prozesuan integratu eta euren ahotsa eta erabakiak erdigunean jartzea. Lehen esan bezala, herri sortzaile eta partehartzailea eraiki nahi dugulako.

Hori dela eta, jadanik hasiak gara lan-keta egiten eta eguzki lore ludotekako haurrak, ludotekan egin nahi dituzten ekintzak pentsatzen, eztabaidatzen eta erabakitzen jarri ditugu. Adin tarte zabala dugu ludotekan, baina guztiek dute taldean aportatzeko eta horretaz baliatuz, martxoko programaketa osatu dugu. Hemen erakusten dizuegu haurrek erabakitakoa.

- Martxoak 3: tipularen jolasa
- Martxoak 10: altxorren bila
- Martxoak 17: antzerki jolasak
- Martxoak 24: mozzorro festa
- Martxoak 31: merendola

Familia giroan programa

Abenduan Itsasondoko ludotekak, FAMILIA GIROAN programa martxan jarri nahi du. Programa honekin, guraso, haur eta beste familien arteko harremanak erraztu nahi dira dibertsio, jolas eta irteeren bidez, bai ludotekako haurrekin baita guraso txokoan egoten diren haur eta familiekin ere.

Otsailean 18an antolatu zen bonboi tailerrean famili ugari parte hartu zuten eta giro paregabean egin ziren bonboi goxoak. Bertaratu zirenak ederki pasa zuten. Udaberri alderako beste ekintza bat egitea aurriztatu da. ■

GAZTELEKUA: EKINTZA DESBERDINAK ETA BERDINBIDEAN PROGRAMA

Nerabeei zuzenduriko zerbitzu honetan ekintza ugari egin ditugu: Monopoly txapelketa, sukalde tailerra, buztinarekin eskulanak, herriko haurrentzat film emanaldia, Mami txapelketan parte hartu dugu... ostiralero ekintza desberdinak egin dira.

Bestetik, Berdinbidean programarekin jarraitzen dugu. Jada bi tailer egin dituzte nerabeekin. Horrez gain, ardurandun politiko eta herritar desberdinentzat zuzenduriko bi hitzaldi sorta ere izan dira. Bertan, proiektuaren berri herritarrei emateaz gain, indarkeria martxitza gazteen artean nola ematen den, horren inguruan dagoen ikuspegia eta horren aurrean nola jokatu behar den aztertu ahal izan zen. ■

Iker Uson, tolosarra, 34 urte

Itsasondoko gizarte langileak, gizarte ongizateko zerbitzuak aurkezten dizkigu

Administrazio eta Politika zientzietan lizentziatua eta gizarte langilea. Gaur egun, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Itsasondoko gizarte langilea.



Zer dira gizarte zerbitzuak?

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren sarbidea da, eta haren funtzio nagusia gizarte-beharrak detektatzea eta haiei erantzutea da.

Gizarte Zerbitzuen Sistemak, beste sistema eta politika publiko batzuekin koordinazioan, helburu hauek ditu:

- Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunaren ondorioz emandako banakoaren eta familiaren beharrei erantzutea.
- Babesgabetasun-egoerak prebenitzea eta haiek eragindako beharrei erantzuna ematea.
- Bazterte-egoerak prebenitzea eta haiei erantzuna ematea, eta, halaber, pertsonen, familien eta taldeen gizarteratzea sustatzea.
- Larrialdi-egoerak prebenitzea eta haiek eragindako beharrei erantzuna ematea.

Norentzat dira?

Itsasondon bizi den edonorentzako, baldin eta profesional-talde baten laguntza behar badu bere autonomia, integrazioa eta/edo gizarte ongizatea hobetzeko.

Nork eta non egiten du arreta?

Gizarte zerbitzuetan gizarte langilea da erreferentziako teknikaria. Kasu honetan, nik neuk hartuko nuke herritarra. Udaletxean bertan dugu gure bulegoa, eta izan dituen hobekuntzekin, leku eroso eta egokia dugu.

Nola eskatzen da hitzordua?

Arreta eguna asteazkena da. Ostiraletan ere bertan egoten naiz hiru orduz, baina kasu bakoitzarekin ditudan lanak zein administratiboak egiteko erabiltzen dut. Horrela, asteazkenerako hitzordua hartzeko, edozein egunean udaletxera joan eta bertan ordua hartu dezake edonork.

Zein zerbitzu eta prestazio eskaintzen dira?

Bi arlo ezberdinduko nituzke. Batetik, zerbitzu eta prestazio orokorrak; honetan, informazioa, aholkularitza eta balorazioa daude, alegia, edozein egoeraren aurrean herritarrek gure informazioa eta aholkuak jasotzea eta gizarte zerbitzuetako egoera bat denean honen balorazioa. Eta, bestetik, zerbitzu eta prestazio zehatzak, herritarrek duen egoera edo arazoaren aurrean eskaintzen direnak. Hauek batzuetan ekonomikoak izaten dira, eta beste batzuetan ez. Gizarte zerbitzuak sozialki oso loturik daude prestazio ekonomikoetara, baina azpimarratuko nuke, gure lanaren zati garrantzitsuen hauetatik haratago doala eta gizarte langileak ez garela "dirua" ematen dugunak, baizik eta beste bitartekoan artean, batzuetan "dirua" erabiltzen dela.

Nork izango du nire erralitatearen berri?

Gizarte zerbitzuetara etortzen den herritarren egoerak gizarte langileak bakarrik dakizki, eta berarekin lan egiten duen administrari laguntzaileak arlo batzuetan. Ezinbestekoa da konfidentzialtasuna. Gure laneko irizpide nagusienetarikoa bat da. Horrela, elkarrizketa bakoitzean hitz egiten denaren laburpena, erabiltzaile bakoitzak duen espedientearen idazten da, eta hauek giltzapeturiko artxibategian gordetzen dira.

Zeintzuk dira itsasondon gehien jasotzen diren beharrak?

Nik arlo hauek ikusten ditut:

1. MENPENKOTASUNARI LOTURIKO EGOERAK: ohikoena adinekoen egoerak izaten dira, nahiz eta menpekotasuna helduek, gazteek edo haurrek ere jasan dezaketen. Funtsean, eguneroko zereginak zure kabuz egin ezin dituzula suposatzen du menpekota izateak, eta

ondorioz, beste norbaiten laguntza behar duzula. Horrela, adinekoen senitartekoak askotan etortzen dira gizarte zerbitzuetara. Nire irudipena da, askotan, familian adineko horren zaintzan krisi bat dagoenean etortzen direla, alegia, familiak jada gairadituta ikusten duenean bere burua. Nik lehenago etortzera gonbidatuko nituzke, askotan prebentzio moduan. Informazioa eta aholkularitza izateak asko laguntzen die familiei.

2. OINARRIZKO BEHARRAK ASETZEKO ARAZOAK: herritarrek ere dexente etortzen dira, etxean diru sarrera gutxi izaten dituztelako, eta ondorioz, euren oinarritzko beharrak (alokairua, mailegua, kontsumoak, elikagaiak...) asetzeko arazoak dituztelako. Arlo guztietan, kasu bakoitzak ñabardura propioak ditu, baina honetan are gehiago. Oso ondo aztertu behar izaten dugu kasu bakoitzean herritarrekin batera bere egoera guztia, ez bakarrik diruarena, oso ohikoa izaten delako diruaz gain beste arlo batzuetan zer hobetua izatea. Onartu behar da, 2008tik aurrera, kasu gehiago etortzen direla arlo honetan. Eta azpimarragarria da baita ere, arlo honetan gorakada nabarmena izan dugula beste herrialdeetatik etorritako pertsonena. Lehen salbuespeneko kasuak zirenak orain ohiko bihurtu dira, eta ondorioz, Pakistan edo Nepaleko herritarrek ditugu. Etorrinak orokorrean Euskadira eta Gipuzkoara espreski gehiago etortzen dira, bertan euren oinarritzko beharrak asetzeko aukera gehiago dituztelakoan, eta onartu behar da, Gipuzkoan dauden prestazioak beste inon ez daudela.
3. EZGAITASUNA: herritarrek defizit fisiko zein psikikoak izaten dituzte, eta

guregana etortzen dira ezgaitasun maila baloratzeko, hori lortuta, zerbitzu edo prestazio ezberdinetara joateko informazioa eskuratzen. Foru Aldundiak egiten ditu balorazioak, baina ezinbestekoa da guregana etortzea hori eskatzera. Azpimarratu behar da ezgaitasuna ez dela inkapazitatearekin nahastu behar. Inkapazitateak eragina du lan arloan, eta Gizarte Segurantzara jo behar dute herritarrek, eta ez gizarte zerbitzu sistemara.

4. HAURRAK ETA FAMILIAK: haurrek jasan ditzaketen babesgabetasun egoeren balorazioa eta esku-hartzea udalaren eta Aldundiaren artean kudeatzen dira. Gure kasuan, gizarte zerbitzuetako kasu larriak ez direnak kudeatzen ditugu. Hauetan, noski, ez da oso ohikoa izaten familia guregana etortzea, eta gu izaten gara familiarekin harremanetan jartzen garenak. Mamu handiak daude arlo honen inguruan, eta normalean, familia guztiek pentsatzen dute gure helburua, haurrak "kentzea" dela. Aukera hori egon badago, baina oso muturreko kasuetan ematen da. Ohikoena famili horri baliabideak eta laguntzak eskaintzea izaten da, haurrak babes osoa bere familiarekin lortu dezan. Beraz, familiari laguntzeko egoten gara, eta ez haurrak "kentzeko", nahiz eta laguntza horretan, noski, funtzionamendu eta jarrera batzuk aldatzeko lan egiten dugun.

Zein laguntza ekonomiko daude?

Lehen aipatu dudan moduan, laguntza ekonomikoak egoera zehatz batera loturik egoten dira. Azpimarratuko nituzke:

1. Menpekotasunean hiru prestazio ekonomiko daude, eta bi asko erabiltzen dira: batetik, zure menpekotasunaren senitartekoa zaintzekoarena, eta bestetik, senitarteko hori zaintzeko profesional bat kontratatzeko laguntzarena. Guztiak eskatzeko, guregana jo behar da.
2. Oinarriko beharrak: lehenik eta behin, prestazio garrantzitsuena Diru Sarrearrak Bermatzeko prestazioa da. Lanbide-k kudeatzen du eta erdarazko RGI izenarekin oso ezaguna da. Guk informazioa eta aholkularitza ematen diegu herritarrei, laguntza hau lortzeko. Bestetik, Gizarte Larrialdiko Laguntzak guk zuzenean kudeatzen ditugu, Jaurilaritzak urtero bideratzen duen diru kopuru batekin. Hauekin orokorrean, alokairuan eta kontsumoetan laguntzeko dirua

ematen da. Ez da dena ordaintzen, nahiz eta jendeak horrela ulertu, baizik eta zati bat ematen da eta askotan ez da oso handia izaten. Hauetatik ere, oinarriko etxeko tresnak (hozkaillua...) erosteko dirua, edota Osakidetzako prestaziotik at daudenak (betaurrekoak, ahoko arazoak...) erosteko ere eskaintzen dira. Hauetan guztietan, noski, bakoitzaren egoera ekonomikoa zein ondasunak kontuan hartzen dira.

Menpekotasunari loturik programak?

Arlo honetan baliabide ugari daude. Beti aipatu behar da, herritarrek era pribatuan moldatu daitezkeela, baina erakunde publikoen laguntzak zein prestazioak jasotzeko ezinbestekoa da guregana jotzea.

1. TELELAGUNTZA: bakarrik bizi diren adinekoentzat edo orduak bakarrik igarotzen dituztenean oso aproposa. Adinekoak, bere lepoan daraman lepokoaren botoia sakatzuz gero, senitartekoekin harremanetan jartzen dira Jaurilaritzako Beti On zerbitzutik. Horrela, edozein larrialdi gertatzen denean, adinekoak soilik botoia sakatu beharko luke.
2. ETXEZ ETXeko LAGUNTZAK: udalak Arreta enpresarekin kontratua du eta menpekotasuna duen pertsonari, egunero gehienez hiru orduz, bere etxean bertan arreta eskaintzeko aukera da, bi lan mota egiteko: zaintza pertsonala edo etxeko lanak. Udalak egiten ditu balorazioa eta lanen programazioa. Adinekoak bere ondasun eta diru sarrearen arabera zerbitzuaren kostua ordaintzen du.
3. EGUNEKO ZENTROA: menpekotasuna duten pertsonen zentrorik gertatzen dira. Pertsonak goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara gutxi gorabehera zentro honetan arreta jasotzen du, eta gero bere etxean bizi da. Horrela, zaintza jasotzen du, baina etxea utzi gabe. Gainera, joan-etorriko zentroak berak bere gain hartzen ditu. Honetan ere, kostua bakoitzak duenaren arabera ordaintzen da.
4. EGOITZAK: menpekotasun handia duten pertsonentzako da. Bertara joaten direnek beren etxea uzten dute, eta hil arte bertan bizi dira. Zerbitzu guztiak jasotzen dituzte eta familiak egunero bisitatzeko eta egoteko aukera handiak ditu. Oso fama txarra dute, baina pertsonalki, kasu batzuetan oso baliabide egokia dela uste dut,

eta jasotzen duten zainketa integrala bezain profesionala izaten da. Kostua ere bakoitzak duenaren arabera ordaintzen da, eta nahiz eta etxea utzi, inork ez dio bere etxea kenduko bertan egoteagatik.

5. SENDIAN PROGRAMA: zaintzaileen-tzako laguntzak dira, arlo psikologikoan laguntzeko, banaka edo taldeka, lagun egoera ere ez delako batera erraza izaten.

Norekin izaten duzu harremana?

Erakunde publiko guztiekin. Gehienbat Aldundiarekin eta beste udalekin. Baina, behar denean, baita Lanbiderekin, Jaurilaritzarekin eta Espainiako administrazioarekin ere. Hortik aparte, osasun sistemarekin, bai herriko medikuarekin (bere lankidetzara ezinbestekoa da), espezialistekin, ospitaleekin, osasun mentalariekin... eta udal honetan bertan, lankide guztiekin, baina espresuki arreta orokorra egiten duen Maiterekin eta gazteen arloa daraman Ainararekin. Herri mailan dauden eragileekin ere harremana izaten dut. Eskolarekin, adibidez, egiten duten detekzio lana guretzat ezinbestekoa delako. Inoiz jostunen lankidetzara ere izan dugu.

Ongizateko lantaldea ere badago. zer aipatuko zenuke?

Lantaldea sortzea garrantzi handikoa izan da herri mailan eta batez ere nire lanean. Lantalde honetan, hainbat herritarrek eta nik neuk ere parte hartzen dut, eta ongizateko arloan dauden gaiak jorratzen ditugu. Jakina, konfidentzialtasuna ez da gaitzen. Bertan, zenbait ekimen eta ideia jorratzen ditugu, eta aurten ere jorratuko ditugu, gizarte zerbitzuak herritarrengandik ahalik eta gertuen egoteko. Niretzat oso lagungarria izan da, besteak beste, herriko iritziak jasotzeko eta ikuspuntuak entzuteko. Beste batzuetan, elikagaien banaketa dela eta, boluntarioak lortzeko eta banaketa hileroko egin ahal izateko. Berriki aurkeztu den langabeen lan-poltsa ere lantalde honetan sortu zen.

Informazioa lortzeko, beraz, zuregana joateko aholkatu beharko gune?

Bai, hori da. Gainera, **maiatzaren 9an, 18:00etan, aurkezpen irekia egingo dugu Udaletxeko kultur gunean**, eta aukera ezin hobea izango da herritarrek gure eguneroko lana gertuagotik ezagutzeko. ■

Ihauteriak pasa berri ditugu eta...

1. Mozorrotu al zara? Zertaz?
2. Zein duzu mozorrorik gustukoena?
3. Zein mozorro ez zenuke inoiz jantziko?
4. Zein pertsonai famatu eta zertaz mozorrotuko zenuke?



Rosa Etxeberria, 44 urte

- Ez, ez nai mozorrotu.
- Egualdi kaxakarra izaten dela eta Eskimalarena gustatzen zait.
- Intsektuz.
- Griezman aingeruz mozorrotuko nuke.



Maria Victoria, 66 urte

- Ez nai mozorrotzen.
- Infanta Kristinaz mozorrotuko nintzateke.
- Ziklista.
- Xabi Prieto Monjaz.



Maider Zabalu, 15 urte

- Bai, Mekanikoz eta futbol amerikano jokalariz mozorrotu nai.
- Astoaren mozorroa da gehien gustatzen zaidana.
- Pedro Pikapiedra.
- Messi ipotxaz mozorrotuko nuke.



Niurmys, 37 urte

- Ez nai mozorrotu ez.
- Sorginaren mozorroa asko gustatzen zait.
- Printzesaz.
- Rajoyri deabruaren mozorroa jarriko nioke.



21. Ibilbidea

Lazkao-Lazkaomendi-Lazkao

Deskribapena: Lazkaoko plazatik Ataun alderantz abiatu eta bariantearekin egingo dugu topo. Zubia gurutzatu eta eskuinera hartuko dugu, eta ondoren, errekaaren albotik gora jarraitu Iribe txiki baserri-raino. Hemen zubi txiki bat topatuko dugu. Honi jaramonik egin gabe, bide nagusiari zuzen jarraituta 100 bat m-ra, bidegurutze bat dago. Bertan, ezkerretara malda gora doan bidea hartuko dugu, Ibarlabura ikuilura iritsi arte. Ezkerreko pista hartu eta aurrera joango gara, Imaz baserriraino.

Bi baserriren artean igaro, eta ezkerretara hartu ondoren, Imaz Berrirako sarreraren azpitik pasatu eta gora egingo dugu, arrasto zuri-horiak jarraituz. Aldapa handi batean gora egiten duen lurrezko bide honetan bi bordetara helduko gara. Horiek atzean utzita, ezkerretik gorantz jarraituko dugu. Zehar batean aurrera egin eta beste pista batera iritsitakoan, eskuinetara jo eta pinudi batean zehar gorantz joango gara, harik eta gaina harrapatu arte. Laister,

maldarik gabe, Amondarain baserrira iritsiko gara. Hemen pista nagusia hartuko dugu, ezkerrean, Lazkaomendi norabidean. Norabide honetan, Abalin baserria izango dugu parez pare. Asfaltutako bideari jarraituko diogu, Lartxai izeneko baserriaren elkartearaino topo egin arte. Ezkerretara dagoen bide nagusiari jarraituko diogu, Mariategi baserriarekin topo egin arte. Hemen, bide nagusia utzi eta ezkerretara joko dugu, Iztueta Garakoa baserriraino. Lehenengo baserrira iristen garenean, ezkerretara haritz eder batzuk ikusiko ditugu. Harizti koxkor honetan sartu eta berehala bidezidor bat aurkituko dugu goitik behera. Honi segitu eta goi-tentsioko poste bat topatuko dugu pare-parean. Bere oineraino joan behar dugu. Hemen, pinudian sartu eta malda behera hormigoizko pista batera iritsiko gara. Eskuinerara hartu eta laister asfaltozko bide batekin topo egingo dugu, berriro eskuinera hartu eta bide hau jarraituz Lazkaora iritsiko gara.■



Iraupena: 2 ordu eta 35'
Ibilbidea:
Lazkao-Amondarain: ordu 1 eta 30'
Amondarain-Abalin: 20'
Abalin-Lazkao: 45'



01 Lazkaoko enparantza



02 San Juan ermita



03 Agauntza erreka



04 Imaz baserria



05 Amundarain baserria



06 Lazkaomendi



07 Abalin baserria



08 Lartxai elkartea



09 Iztueta garakoa

Enparandegi baserria 10





Permanentzia dela eta, oztopo asko jarri dizkigute. Baina, zer da hobe, mugikor bat doan edukitzea edo zuk nahi duzun baldintzak jartzea zure mugikor kontratuan?

Permanentzia mugikorretan, beharrezkoa al da?

Galdera zaila erantzuteko, ezta? Zer nahiago, mugikor bat "doan" edo zuk lasai erabakitzea zer tarifa mota hartu? Badakigu bizitza honetan ezin dela dena eduki, eta are gehiago honelako kontuetan.

Dagoeneko, zuetako askok badakizue telefoniako konpainia asko permanentzia gabeko kontratuak egiten hasi direla. Alde onak baditu, eta batzuentzako alde txarrak ere bai. Baina, nire ustez -hau nire iritzi pertsonala da-, alde on gehiago ditu txarrak baino.

Azken finean, permanentzia mugikorrek (terminala) ematen digu. Hau da, guk kontratu bat egiten bagenuen telefoniako enpresa batean, eta kontratu horrekin telefono mugikor bat ematen baziguten dohainik edo bere prezio nominalaren azpitik (merkealdi bat izango balitz bezala), permanentzia batera lotzen ginen.

Gertatzen dena da, normalean, permanentzia ematen zuten kontratu motak 15/20/25 eurotik gorakoak izaten zirela. Beraz, oso polita da esatea "*Bai, bai, mugikor hau dohainik...*"; baina, benetan ondo ateratzen zaigu? Ziurrenik, batzuei bai eta beste batzuei ez. Adibidez: gutxi hitz egiten duen pertsona batek hilean 15 dei egiten baditu, eta denera 35 minutu pasa hitz egiten badu, ondo datorkio 20 euroko tarifa bat jartzea non 120 minutu ematen zaion deitu ahal izateko? Nire ustez ez, merkeagoak baitaude merkatuan.

Hala eta guztiz ere, jendea itsututa dago mugikorrek doan izan beharko lukeen kontuarekin. Mundu honetan, inork ez du ezer oparitzen, eta are gutxiago krisialdi honekin. Ez baduzu ondo aprobetxatzen hartutako tarifa, mugikorraren azken prezioa biderkatu edo hirukoiztu egiten da (biderkatu permanentziako hila bete gutxiak eta tarifaren kostua, eta ikusiko da mugikorraren prezioa baino garestiago ateratzen dela). Bada garaia burugogorkeria hori baztertzeko, telefoniako konpainiek ez dute zertan mugikorra oparitu, telefoniako zerbitzu egonkor, kalitatezko eta iraunkorra eskaini baizik. Zertarako balio digu azkeneko generazioko mugikor itzel bat edukitzeak, bere aplikazio guztietatik lau bakarrik erabiliko baditugu? Bakarrik deitzeko, argazkiak ateratzeko, jolasteko eta whatsapp-ak bidaltzeko. Gainera, permanentzian egonda, ezin dugu ez tarifaz aldatu ez beste konpainia batera aldatu. Eman dezagun esperientzia txar bat eduki duzula zure konpainiarekin; ezin zara pasatu beste batera, isuna etorriko baitzaizu konpainia aldaketa egiten bada, permanentziagatik.

Beraz, nire ustez, hobe da permanentziarik ez hartzea. Zuk aukeratu dezakezu nahi duzun tarifa, ondoen datorkizuna. Badakizu mugikor konpainia horren atea irekita egongo direla beste batera joateko, eta mugikorra non nahi askea (librea) erosi dezakegula. Hitz gutxitan, ez daukazu telefoniako konpainiarekin ezkondu eta egon beharrik.

Telefonia mugikorraren mundua asko aldatu da urte gutxitan. Duela hiru-lau urte smartphone modelo gutxi zeuden, Internetara ez zen asko erabiltzen mugikorretan eta Whatsapp edota aplikazioak ez ziren existitzen edo garatzen hasi berriak ziren. Gaur egungo mugikorrek ez dira telefono arruntak, ordenagailu mugikorrek izango balira bezala dira. Horregatik, konpainia askok ez dituzte oparitzen, mugikor arruntak ez direlako eta garestiak direlako.

Urte gutxitan igaro gara deitzeko edo dei galduek egiteko edo SMSak bidaltzeko sistemetatik mugikorraren Interneten menpekotasuna edukitzera. Badirudi, whatsapp edo telegram-ik gabe ezin garela egun bat bera ere egon; ematen du mundutik kanpo zaudela.

Permanenzia kontu honekin bukatzeko, ez al da hobe zuk nahi duzun tarifa jarri eta mugikorra erostea? Jende askori ez zaio gustatuko hainbeste mugikor baten ordaintzea, baina jadanik ez dira telefono sinpleak. Ikusiko duzue nola merkeago ateratzen den zentzu horretan telefonoa zuek erosten baduzue. Interneten denda asko aurkitu ditzakezue, eta fidagarriak, gainera; ez daukate mugikor txinarrak izan beharrik. Alemaniako, Ingalaterrako eta Frantziako merkatuetan ere oso merke aurkitu daitetzke.

Espero dut permanentzia kontu honen arazoa ondo azaldu izana. ■

Ijito eguna

Aurreko otsailaren 22an elkartu ginen Guraso elkarteak deituta Ijittu eguna ospatzeko. Oraingo honetan, lehenengo eta bigarren mailako gurasoei egokitu zitzaien eguna antolatzea.

Eguraldia bikain portatu zen. 17:00etan jarrita genuen hitzordua herriko plazan.

Aurtengo nobedadea izan zen danon artean Ijittu beso erraldoi bat egitea. 6,5 metrokoa!

Gero, herrian zehar zartagiak astinduz buelta bat eman genuen. Ederki ibili ginen.

Bukatzeko, afari-merienda egin genuen jubitatuaren elkartearen. Postrea? Ijito besoa. Ummmmm! Ze goxoa!



Ijito besoa prestatzen



Plazan denak elkartuta

LOMCE

Aurreko otsailaren 17an 15 bat lagun elkartu ginen orain Espainian onartu berri den Lomceri buruzko hitzaldi batean. Lomce hezkuntzari dagokion legea da, eta datorren ikasturteetik hasita, hezkuntzan hainbat aldaketa ekarriko ditu: besteak beste, Espainian prestatutako frogak hainbat mailatan...

Hizlaria Baikarako (Gipuzkoako gurasoen elkartearen) kide Imanol Zubizarreta izan zen. Datu asko jaso genuen; bukatu ezinik ibili ginen.

Argi dago gai honi buruz gutxi dakigula oraindik. Gizarteratzeko beharra dago, ondo informatzekoa ere bai.

Momentuz, guraso elkarteak sortu berri duen blogean Imanolek egindako aurkezpenean erabili zuen power point-a ikusgai dago. Inork interesa izanez gero, bertan dago.

<http://itturritxikige.blogspot.com.es/>



Kultur gunean izan zen hitzaldiaren une bat

Eskola txikia, altxor handia

Atzo, normalean bezala, eskolatik umeak jaso eta plazara jeitsi ginen. Normalean bezala ere, eguneroko kontuekin hasi ginen guraso kuadrilla bat...

- Pello! Jan ezazu bokadilloa azkar, gero, 4:30etan Ainarakin ludotekan egon behar dezute eta!
- Joe, aita! Ez zait txorixoa gustatzen!
- Kasuen la ordiga! Ez zaitetz betiko moduan hasi! Jan eta kitto!
- Bueeeno, baina bihar txokolate bokata nahi dut.
- Ados. Bihar txokolatearena jarriko dizut
- ...

Halako batean, 7 urteko Mirenek honako hau galdetu digu:

- Zergatik ez da Alaitz plazan gurekin jolasten..?

Miren, neska berezia da. 7 urte ditu baina azkarra eta bizia da. Ez du gehiegi hitzegiten, bizikletan ibiltzea ere ez zaio gehiegi gustatzen. Gure ondoan egoten da, ixilik, baina adi. Peruk erantzun zion:

- Ba, Miren, Alaitz, Ordiziako eskolara joaten da. Beraz, lagunak han ditu eta eskolatik irtetzean han gelditzen da beraiekin jolasten.
- Ba ze pena!- erantzun zuen Mirenek- asko gustatzen zait berarekin jolastea!

4:30ak iritsi ziren eta ludotekara joan ziren haurrak.

Bitartean bertan geunden 6 guraso, ludotekan zegoen argazki erakusketa ikusten gelditu ginen. Argazki batzuk aspaldikoak ziren. Beste batzutan, ordea, gure umeak zeuden:

- Argazki hauek nondik atera dituzte?
- Ba eskolan zeuden eta erakusketa bat egitea erabaki zen.
- A ze ideia ona! Begira Martxel, zure semea hemen dago!
- Bai, ederki ibili zirena irteera horretan, Aramara joan ziren.
- Gu ere oso ondo ibiltzen ginen eskolan txikiak ginenean... Akordatzan naiz nola joaten ginen udalekuetara, tailerrak nola egiten genituen...
- Tailerrak?
- Bai, josten ere ikasi genuen. Baietz, Mikel?
- Bueno! Batzuk beste batzuk baino hobe! Lehen danak ginen herrikoak. Orain konturatzen naiz ze

zainduak izan ginen.

- Eskola txikia izatearenak abantaila pila bat ditu.... Neretzat garrantzitsuenetakoa giroa da, goxotasun hori ez da diruarekin ordaintzen! Danok ezagutzen dugu elkar!
- Bai. Ni ez nintzen eskola txiki batera joan, Ordizikoa bait naiz, ta neretzat gure umeak bakarrik, lasai, naturalki sortutako taldeetan eskolara joatea ere esanguratsua da.
- Ba, bai. Gure umeak jasotzen duten arreta ezin hobea da. Baita guk ere! Irakasleak eskura daude.
- Eskolagatik ez balitz, egongo al ginateteke gu hemen elkarrekin kafea hartzen? Gehienok ez genuen elkar ezagutzen eta!

Halako batean Alazne iritsi zen. Lanetik 4:30tan ateratzen zen eta Maiderekin jasotzen zituen bere umeak:

- Iepa! Lehertuta nago! Gaur soldata ondo irabazita nator! Zeinek nahi du kafe bat? Gero udaletxean bilera daukagu eta kafeina pixka bat behar dut. Zemuz atera dira gaur nere altxorak, Alazne?
- Ondo! Eskulan hau egin dute. A ze artista pareta dezun!
- Bai, horixe! Egiten dituzten eskulan guztientzat lekua falta zaigu etxean...

Kafea hartzen ari ginela, Kepa iritsi zen. Kepa, Alazne eta beste 6 kiderekin batera guraso elkarteetan dago:

- Ieepa! Alazne! Bilera udaletxean dugu, ez?
- Bai, 6:30tan.
- Ze bilera dezute?
- Itsasondo, haurren herria-rena.
- A! Ta zertaz hitzegin behar dezute?
- Ba eskola/ haur eskola/ ludoteka eta gaztelekuari izenak jarri eta gero, gaur, umeak eskolan egindako logoak ikusiko ditugu, besteak beste.
- Zein ziren ba aukeratutako izenak?
- Haur eskola eta eskolantzako URKIPE, ludotekantzako EGUZKI LORE eta gazte lekuarentzat KARREAPE. Ohitu beharko dugu izen horiekin!
- Hemen dugun artista kuadrillarekin seguro zerbait polita egin dutela.
- Ziur baietz! Gu marrazten hasiko bagina... Eneee!
- Beno, goazen! la ordua degu eta!
- Bai, bihar egongo gara. Aio!
- Aio!



Handik 5 minutura Ekaitz sartu zen tabernan. Ekaitz Herri Bizitzan egoten den udaletxeko zinegotzia da.

- Aupa! Zemuz?
- Hemen, Ekaitz! Beti bezala sufritzen!
- Alazne ta Kepa joan al dira?
- Bai, oraintxe!
- Ze pena! Beraiekin hitzegin nahi nuen...

Eskolako Irati eta Laia sartu ziren orduan:

- Kaixo! Ekaitz, kafe bat hartzeko denbora badugu?
- Aupa! Bai horixe! Nik ere hartuko nuke! Oraintxe iritsi berria naiz lanetik.

Peruk galdetu zien orduan Irati eta Laiari:

- Zenbat ume hasiko dira datorren ikasturtean 2 urteko gelan?
- Ba momentuz, 3. Aramako 2 ez badira etortzen...
- Baina ez al dira ba 8 kinta hortan Itsasondon jaio-tako umeak?
- Bai., hala dira. Ez dakit zein diren arrazoiak beste herrietara eramateko haurrak. Egia esan, gustatuko litzaidake jakitea zeintzuk diren arrazoiak. Horrela, hortan lan egiten saiatuko ginatke. Agian, zerbitzuak falta dira...
- Zerbitzuak falta? Hemen dugun eskola, ludoteka, gazte leku ea. bezalakorik hemendik kanpora topatzea kostatuko zaie!
- Agian ez dakite.....

Orduntxe atera ziren danak ludotekatik. Ui! Barkatu! Eguzki- Loretik, poz pozik eskuetan buztinarekin egin-dako eskulan batekin.

Mirenek ere, buztinezko lorontzi bat egin zuen. Ohartxo bat idatzita zeukan:

"... Alaitz, hau zuretzat egin dut. Lehen asko egoten ginen elkarrekin. Asko jolasten genuen herriko plazan. Halere, zurekin gehien egitea gustatzen zitzaidana lo-reak biltzea zen. Bihar, udaberrian sartuko garela esan du andereñok. Horregatik egin dut hau zuretzat. Etorriko zara bihar nerekin lorak biltzea? Horrela lorontzi honetan jaso ditzazkezu..."

Hau, edozein arratsaldetan Itsasondoko plazan gertatzen dena da. Oraintxe grabatu berri dugu bideo bat. Eskolako blogean txertatu dugu gurasoak orrialdean. Bertan ere aurretik egingdako ekintzen argazkiak dituzue. Disfrutatuko dituzuelakoan...

<http://itsasondokoherrieskola.blogspot.com.es/>

ITTURRI TXIKI GURASO ELKARTEA

Mami lehiaketa

Aurten bi kategoria izan ziren bata mamia soilik eta bestetik mamiarekin eginiko postrea.

Mamiaren kasuan, bost lagunek parte hartu zuten eta Ana Etxaniz-ek eginikoa izan zen bozka gehien jaso zituena.

Postrearen kasuan, 8 aurkeztu ziren eta lan desberdinak ikusteko aukera izan zen (flana, bizkotxoa, gazta tarta modukoa, mamia ezti eta intxaurrekin, kopa ikusgarri bat, marrubiekin egindakoa, txokolatexkoa,...). Kasu honetan, epaileek bi lagunei eman zien saria. Alde batetik, Iker Mendizabalen kopa eta bestetik Mari Karmen Mendizabalen bizkotxoa izan ziren sarituak.

Jende ugari animatu zen Jubilatuta elkartera dastaketa ikustera eta ondoren, dena bukatutakoan, bertaratuek, aurkeztutako postreak dastatzeko aukera izan zuten. Guztiak ere ados zeuden, aurkezturiko guztia goxo goxoa zegoela.



Mª Karmen Mendizabal, Iker Mendizabal eta Ana Etxaniz irabazleak



Epaimahikideak

MARRUBI MAMIA INTXAURSAL TSA APARRAREKIN

Osagaiak:

Ardi-esne litro 1, Gatzagia, Marrubi kilo 1, Intxaurrak 250 gramo, Esnegaina 300 ml, Azukrea, Limoi 1.

Prestaketa:

Marrubiak garbitu eta zatitu, horietatik bi erreserbatu. Kazo batean marrubiak bota ur apur batekin, 3 goilarakada azukre eta limoi zukua. Dena egosi ez tita, marrubiak gozatu arte. Pixka bat irabiatu. Marrubi mermelada zerbitzatu behar den kopan bota eta paretak zikindu. Bestetik, intxaurrekin txikitu eta erreserbatu. Behi-esnea eta esnegaia sutan jarri kanela adarrarekin, eta 15 minutuz eduki. Denbora hori pasatutakoan, intxaurrekin bota eta utzi mazeratzen beste 10 minutuz. Esne hori koladore batetik pasatu eta hozten utzi. Hoztutakoan, sifoi batera bota eta itxi, eta karga bat sartu eta izotzetan sartu. Sifoiak ez badugu, esnegaia harrotu eta intxaurreko esnea bota eta suabe nahastu. Mamia egiteko, ardi-esnea su ez tita jarri eta irakin arte egon. Behin irakindakoan, sutik atera eta hozten utzi, 37ºra iritsi arte. Behin hori gertatutakoan, 3 tanta kuajo bota, pixka bat nahastu eta marrubi mermelada dugun kopara bota. Utzi mamia gogortu arte. Azkenik, sifoiako intxaursaltsa gainera bota eta erreserbatutako marrubiak gainean jarri zatituta, eta intxaurrekin ale bat ere bai.

MAMI TARTA

Osagaiak:

6 mami ontzitxo, 200 gr. Azukre, 100 gr gurin, 100gr. Irin, 2 arrautza, Limoi 1, Kanela goilaratxo bat

Tarta apaintzeko:

Glas azukrea, Masustak, Grosellak, Menta orriak

Prestaketa:

- Ontzi handi batetan arrautzak irabiatu. Azukrea gehitu eta irabiatzen segi. Mamia eta gurina gehitu pomada puntuan. Dena ondo nahastu masa homogeneo bat geratu arte.
- Irina gutxika gehitu eta masara ondo nahastu arte eragin.
- Limoiaren azala arralatu eta kanelarekin batera masari bota.
- Moldea gurinarekin ondo igurtzi eta bertara masa bota. Labea ondo berotu 200º tara eta ondoren 45 minutu eduki labean.
- Utzi hozten eta moldetik atera.

Nola zerbitzatu:

Itxura hobea izan dezan, berriez ere buelta eman tostaturako alde goruntza begira gera dadin. Glas azukrea, masustak eta fruitu gorriekin eta menta orriekin apaindu.

MAMI ERREZETA IRABAZ-LEA (ANA ETXANIZ)

Osagaiak:

Ardi esnea, Gatzagia tantatan

Prestaketa:

- Esnea berotzen jarri irakin arte.
- Altxatzen denean, sutatik kendu eta epeldu arte itxaron (35º gutxi gorabehera)
- Epeltzen denean, kendu gainean egiten zaion mami edo nata geruza eta banatu bakar-kako ontzietan.
- Prestu eduki kutxarila bat eta ontzi bakoitzean tanta bat bota eta buelta pare bat eman.
- Itxaron hoztu arte. "Ez mugitu eta ez ukitu ezertarako".

Nola zerbitzatu:

- Plater handi batean mamia jarri eta inguruan ontzi txiki batzuetan bakoitzak aukeratu nahi duena (eztia, mermelada, arandanozkoa edo albari-kokezkoa, azukrea, ea.).

Martxoak 8

Martxoaren 8an, urtero bezala, emakumeen nazioarteko eguna ospatzeko elkartu ginen, bazkaritan. Hala ere, gogoratu behar da, nahiz eta egun hori ospatu, egunero-egunero borrokatu behar dugula emakumeon eskubideen alde, sistema patriarkatu hau suntsitu arte. Aurten, jubilatuen elkartean beti lanean dabiltzanei egin nahi izan genien omenaldia, eta domina Pili eta M^o Doloresi eman genien. Besterik gabe, eskerrak eman bertaratu ziren emakume guztiei, Arbelaitz elkarteari eta baita bazkaria prestatu ziguten Iker eta bere laguntzaileei ere. Mila esker.

Borrokan, eskubidez betetako bizitza duin bat eskuratu arte, altxa emakumeak!

M^o Dolores Arbillak aurten saria jasotzen



40 lagunetik gora elkartu ziren bazkaria



Herriko plazan eginiko konzentrazioan jende ugari elkartu zen

(lorezaintza gomendioak)

Arrosa-landarea inaustea

Orokortasunak

Arrosa-landareak etengabe ernetzen dira urteekin, eta kimatu ezean, adar bizi eta hilen sastraka bihurtzen dira, kalitate eska-seko loraldi urriarekin. Arrosa-landarea inausteak kimu indartsu eta berriak sortzea dakar, ugari loratzen direnak.

Inauste garaia

Arrosa-landareak bi garaitan inausten dira: garai begetatiboan (udaberritik udazkenera) eta atseden garaian (negua).

- Garai begetatiboa. Loraldien ostean, arrosa zimelduak ahalik arinen kentzen dira, eta horrela, arkakaratsak agertzea ekiditen da. Horiek landarea ahultzen dute, eta era berean, loraldi berri bat estimulatzen da.
- Atseden garaia. Sasoi honetan egiten da inausterik gogorrena. Leku hotzetan, negu amaieran inausi behar da, izozte gogorren aldia igaro ostean.

Mozteko modua

Adar biziak ernamuin baten gainetik moztu behar dira, eta horrek ernetzea estimulatuko du. Adar bat erabat kendu nahi bada, lotunetik ahalik eta gertuen moztu behar da, ipurdirik utzi gabe eta eusten duen adarra kaltetu gabe.

Ernamuinen gaineko moztetak ernamuin sendo baten 6-10mm gainetik egingo da, ondo orientatuta (kanporantz), 45°ko inklinazioarekin; horrela, ur tanta bat ernamuinaren beste aldera eroriko da. Adar gaixoak edo kaltetuak zati sanoraino moztu behar dira.

Udako inauslean, behean dagoen 1. ernamuinaren gainetik moztu da, edo asko jota 2.aren gainetik.

Inausteko teknikak

“De pie bajo” arrosa-landareak arruntenak dira, eta urteko egurrean loratzen dira. Horregatik, inauste teknikak antzekoak dira, barietate guztietarako.

Landatze urtearen osteko urteetan, honako hauek egingo dira: Lehenengo eta behin, adar hilak, gaixoak, gurutzatzen direnak eta zupatzaileak kenduko dira.

Gainerako adarrak ernamuin kopuru hauetan inausiko dira:

- Te hibridoak: 4-5 ernamuin erpuru indartsuetan eta 2-4 ez hain indartsuetan.
- Polyanthak eta floribundak: aurrekoak baino arrosa-landare indartsuagoak izatean, inaustea ez da hain gogorra eta indartsuek 6-7 ernamuin uzten dituzte, eta 3-5 besteek.



Maixabel Garmendia
Izadia Loradenda. BEASAIN
943 88 14 40



(errezeta)

Txokolatezko natillak

Osagaiak:

- 1 litro esne
- 12 arrautza
- 200 g txokolatezko estalki
- 125 g azukre

Prestakuntza:

Hasteko, litro esnea irakin egingo dugu. Nahi izanez gero, kanela edo bainila bota dezakegu. Esnea berotzen den bitartean, txokolatea urtuko dugu mikro-uhin batean; beste alde batetik, arrautzen gorringoa eta zuringoa banatuko ditugu. Gorringoak nahastu eta azukrea eta txokolatea gehituko diegu, ongi nahastuz. Behin irakin eta gero, esnea pixka bat epeltzen utziko dugu, oso bero egon ez dadin, eta gorringoei poliki-poliki gehituko diegu eta su baxuan jarriko dugu maiz nahastuz, loditzen dela ikusi arte. Kontuz, irakin ez dezan, moztu egingo zaigu eta. Loditu ondoren, ontzietan jarriko ditugu, eta hozkailuan sartu. Arrautzen zuringoa merenge pixka bat egiteko erabili dezakegu, eta jateko orduan natillen gainean jarri.



Jose Ignacia Duhau
Rubirena jatetxea. BEASAIN
943 88 57 60



Liburuaren txokoa

Liburutegia

Gogoratu nahi dizuegu, iradokizun kutxa bat dagoela bertan eta gustura jasoko ditugula zuen proposamenak. Zalantzak edo kexak badituzue ere galdetu lasai.

Liburu berriak:

- Kamile pottoka gainean (haurren saila)
- Herensuge gorriaren urtea (Eneko Aizpurua)
- La esperanza perfecta (Nora Roberts)
- Isla de las mil fuentes (Sarah Lark)
- La casa de la playa (Nora Roberts)
- Aulki jokoa (Uxue Alberdi)
- Txikitzen zaretenean (Uxue Alberdi) (haurren saila)
- Haurren hiria (Francesco Tonnucci)
- Una gran chica (Danielle Stell)

Haur liburu eguna dela eta, ekintza berezia

Apirilaren 2, asteazkena, haur liburuaren eguna ospatuko da, eta Itsasondoko liburutegian ere ekintza berezia izango da.

IRAKURKETA SEPARAGAILUEN I. LEHIAKETA ITSASONDON: aurtan, lehen aldiz, Itsasondoko liburutegiak, Irakurketa separagailuen lehiaketa antolatu du. Hona hemen oinarriak:

1. Itsasondoko herritarrek parte hartu ahal izango dute
2. LEMA: Itsasondo, liburuen herria
3. Lan bakarra aurkeztu ahal izango da. Horretarako plantilla bat jarriko da.
4. Marrazkiak, imaginazioa eta originaltasuna baloratuko dira.
5. Lau kategoria izango dira: 0-5 urte/ 6-11 urte/ 12-17 urte/ 18tik gora.
6. Lau sari izango dira.
7. Lanak argitaratu egingo dira.
8. AURKEZTEKO MODUA: lanak sobre itxian aurkeztuko dira. Sobrearen kanpoan jarriko da: SEPARAGAILU LEHIAKETA ETA KATEGORIA. Sobrearen barrualdean, lanarekin batera, beste sobre bat jarri behar da, eta bertan jarri beharko dira izena, adina eta telefonoa.
9. Lanak UDALETXEAN aurkeztu behar dira.
10. Aurkezteko azken eguna: MARTXOAREN 31
11. SARI BANAKETA: apirilaren 2an, 18:00etan.

Horrez gain, ekintza hauek antolatu dira:

- MARTXOAK 31, ASTELEHENA, FAMILIA GIROAN: irakurketa separagailuen lehiaketa egingo da herritar guztientzat, kategorietan sailkatuta. Hori dela eta, haurren atalarako, ludotekan bertan egingo ditugu gurasoen laguntzaz. 0-10 urte bitartekoentzat da. Ludotekan elkartuko gara, 16:30etik aurrera.
- APIRILAK 2, ASTEAZKENA: liburutegiko arreta zuzenaren eguna izango da, eta hori aprobetxatuz, liburu bat – piruleta bat kanpaina egingo da. Horrez gain, irakurketa separagailuen sari banaketa egingo da liburutegian bertan. ■

Oharrak



Beko kaleko urbanizaziorako parte-hartze prozesua

Itsasondoko Beko Kale gunea parte-hartze prozesu baten bidez urbanizatzeko prozesua martxan jarri nahi dugu. ITTEN enpresa proiektua landuko du, eta parte-hartze prozesua apirilean burutuko dugu; bi saio egin dira eta erabakiak hartuko dira.

Txakur gorotzak

Zure txakurak kaka egindakoan, JASO MESEDEZ! Itsasondoko kaleak denon etxea dira, ZAINDU ZURE HERRIA! Txakurra zurea da, kalea guztiona!

Ondo aparkatu

Gaizki apartzen duzun horietakoa bazara, arduraz jokatu eta oinezkoak eta arauak errespetatu! Denon artean Itsasondo txukun eta hobe bat egin dezagun.

Kultur Agenda

APIRILAK

- 2 Odol emaileak.
- 2 Haur liburu eguna, ekintza bereziak.
- 14, 15 eta 16 Aste Santuko kanpaina: haur eta nerabeentzako opor ekintzak.
- 19 Txikia, 41. urteurrena.
- 23 Liburu eguna.

MAIATZA

- 3 eta 4 Urkiko Santikutz jaiak.
- 9 Iker Uson herriko gizarte teknikariak Itsasondoko gizarte zerbitzuen inguruan hitz egingo digu / 18:00etan, Kulturgunean.
- 11 Herri Urrats.

EKAINA

- 8 Eskola Txiki eguna, Bidania-Goiatzen.
- 8 Gure esku dago giza katea.
- 9, 11, 16 eta 18 San Juan bezperarako dantza entsaioak / 19:00tan Gaztelekuan.
- 14 Herri Eguna.
- 20 Eskola festa.
- 23 Ludotekako ikasturte amaierako festa.
- 27 Gaztelekuko ikasturte amaierako festa.
- ?? Oriora irteera.

Telefono interesgarriak



Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkartea	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 805800

Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ileapaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo 2.0

Herriko Aldizkaria ((24. zk.)) Martxo-Ekaina 2016

Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga
Ainhoa Barandiaran
Aranzadi Elkartea
Axier Bazaga
Belen Mendizabal
Danel Etxeberría
Enma Arrondo
Eskolako haurrak
Erkuden Mendizabal
Haizea Arruti
Haurreskolako Hezitzaileak
Iker Mendizabal
Iker Uson
Iratxe Ibarra
Itsasondoko Gazte Taldea
Iturririkiki Guraso Elkartea
Javier Iparragirre
Jose Ignacio Duhau
Oihane Arruarte
Maite Lasa
Maixabel Garmendia
Mikel Mendizabal
Rosi Noguera

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, koreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70
itsasondo2.0@itsasondo.net

Lege gordailua: ISSN: 2171-5572
SS-297-2010

Gipuzkoa
BERRIA

**GOGORARAZTEN DIZUEGU
HURRENGO ALEA
EKAINEAN IZANGO
DUZUTELA ETXEAN**

